UDARREGI IKASTOLA IKE

Red adscrita Euskadi Aktiboa

Temas

Infancia, Actividad física.

Descripción

Patioaren erabilera eta genero berdintasuna: duela zenbait urte ekin genion ikastolako patioan gertatzen zenaren inguruan hausnartzeari eta bertatik ateratako ondorioa izan zen neskek eta baloiarekin jolastea gustuko ez zuten mutilek espazioaren lekurik txikiena eta bazterreko tokiak erabiltzen zituztela eta mutil baloi zaleek hartzen zutela espaziorik zentralena eta zabalena. Era berean, ikasle guztien nahiak, gustuak eta beharrak ez ziren asetzen zegoen patio ereduarekin eta antolaketarekin, horregatik, ikasleekin hitz egin, beraien iritzia jaso eta hainbat aldaketa egin genituen (porteriak kendu, material ezberdina eskuratu, jolas garaiak beste era batera arautu,). Zentzu honetan lanean jarraitzen dugu eta parte hartze prozesuen bidez, irakasleen behaketaren bidez eta Ikastolako Kanpo Espazioa taldearen bidez gai honen inguruan hausnartzen eta eragiten ahalegintzen gara, etengabeko prozesu baten bidez.

Mugikortasuna eta ohitura osasuntsuak:

Udarregi Ikastola herriaren goiko aldean kokatuta dago, bertara iristeko aldapa igo behar da. Ikasle gehienak oinez joaten dira ikastolara, gutxi batzuk bizikletaz eta gainerakoak kotxez nahiz autobusean. Egunerokoan garrantzia ematen diogu mugikortasunari eta horregatik, sarritan irteten dira adin ezberdinetako ikasleak ikastolatik inguruko baso, zelai, auzo eta parkeetara. Ohikoa da ikustea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, nahiz DBH.ko ikasleak beraien irakasleekin herriko txoko ezberdinetan zehar oinez ibilbideak eginez edo jolaserako eta ariketa fisikoa egiteko lekuaren bila. Egia esan Usurbilen leku ugari daude ikasleekin joateko egokiak direnak eta ohitura osasuntsuak hartzeko baliogarriak direnak. Hala ere, ikasle zaharrenek beraien beharrei eta ezaugarriei egokitutako jolastokiak, bilguneak, txokoak aldarrikatzen dituzte, iaz egindako parte hartze prozesuan adierazi zuten moduan.

Natura eta aire libreko ekintzen sustapena: Covid19ak hainbat kalte ekarri ditu gizartera eta ikastetxeetara, baina era berean, positiboki har ditzakegun aldaketak ere ekarri ditu. Izan ere, gaixotasuna kutsatzeko arriskua asko murrizten da aire librean egonez gero eta horregatik, ikastolako irakasleek hainbat saio ematen dituzte kanpoan. Aurreko ikasturtean Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoen artean udal brigadarekin elkarlanean hainbat espazio egokitu genituen

klaseak aire librean eman ahal izateko eta oso esperientzia baliotsua izan zen. Era berean, ikasle zaharrenek ezin dituzte barruko espazioak erabili jolas garaietan eta horregatik, garrantzitsua da Ikastola inguruan atsedena hartzeko nahiz jolasteko leku ezberdinak izatea. Aurreko ikasturtean DBH-ko ikasleentzat lasai egoteko lekuak prestatu genituen, aurten, gure nahia jolaserako eta mugimendurako espazioak egokitzea da.

Contacto

Nerea Tolosa - 943361216 - usurbil@ikastola.eus

Fecha de última actualización del recurso

10/02/2022

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Paseo Gernika 11 20170 USURBIL Usurbil Gipuzkoa Euskadi España



Página web del proyecto

http://www.udarregi.eus